

**1206 – EMOZIOEN KUDEAKETA ESKOLAK EMATEAN:  
KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA, EGOERA GATAZKATSUEN IRTENBIDE**

**Nerea Mendizabal Etxeberria - Hezitzailea Komunikazio Ez Bortitzean**

Askotan, eguneroko harremanetan gabiltza lankideekin, ikasleekin... eta argi izan ohi dugu zer helburu lortu nahiko genukeen. Euskaltegiko harremanetan, guretzat garrantzitsuak diren mezuak adierazteko eta ingurukoak entzuteko gaitasuna landuz sendotzen dugu elkarren arteko lotura, eta horixe izango da harmonian eta gustura egoteko bidea. Horrela jokatzu gero, zuzenago eta eraginkorrago eskuratuko dira helburuak.

Konplexuak dira aurre egin beharreko ikas-irakas egoerak, eta, ondorioz, zenbait erabaki hartu behar izaten ditu euskara-irakasleak egunero; besteak beste, tentsioa eragiten duten erabaki teknikoak eta didaktikoak, pertsonen artekoak, instituzionalak eta emozionalak. Euskara-irakasleari emozioak egoki kudeatzeko baliabide egokiak izatea lagungarri egingo zaio, norberaren emozioak identifikatuz eta gainerakoenak ulertuz, komunikazio enpatiko eta asertiboaren bidez, euskara irakastean izan daitezkeen tirabirak modu egokian kudeatzeko.

**Helburu orokorra**

Harremanak zaintzea eta gure ekarpenak eraginkorragoak izateko bidean jartzea.

**Helburu operatiboak**

- Gogoeta egitea euskara-irakasleak aurre egin beharreko ikas-irakas egoera konplexuen gainean.
- Sentimenduak eta emozioak kudeatzeko estrategiak lantzea.
- Ingurukoengana gerturatzeko eta helburuak lortzen lagun diezagukeen hitz egiteko eta entzuteko modua ezagutzea (Komunikazio Ez Bortitzaren prozesuan oinarrituta).
- Eskaini nahi dugun kalitatezko zerbitzua eraginkortasunetik bizi ahal izateko trebatzea.
- Elkarbizitza-giroa eta harreman desberdinak zaintzeko (lankide, ikasle...) baliabideak garatzea.
- Bestearen hitz eta jarrerak entzuteko eta norberari gertatzen zaiona adierazteko baliabideak ezagutzea.

## **Edukiak**

- Gogoeta baliatu, erabakiak hartu eta egoera konplexuei irtenbidea emateko.
- Harremanetan urrutiratzen eta gerturatzen gaituzten elementuak identifikatu.
- Elkarren arteko ulermena oinarri hartuta, adierazteko eta entzuteko prozesua ezagutu.
- Nola zain ditzakegu harremanak eta eraginkortasuna?
- Gustatzen ez zaigun zerbait egin edota esaten denean: Nola kudeatu gatazkak? Zer esan benetan entzuteko? Zein muga jarri? Nola hobetu komunikazioa?

## **Metodologia**

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoek bidez, euskara-irakasleek eguneroko egoerak aztertu eta irtenbideetan sakondu ahal izango dute.

## **Ebaluazioa**

Jarduerak proposatutako helburuen lorpenari buruzko iritziaren arabera baloratuko dira. Honela emango dira balorazioak:

- A (Oso jarduera ona, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eranstean dizkie.)
- B (Jarduera ona, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- C (Jarduera zuzena.)
- D (Proposatutako helburuak gainditu ez izana adierazten du.)
- E (Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- proposatutako jarduera egitea eta horretan gutxienez C kalifikazioa lortzea
- asistentzia % 80koa baino handiagoa izatea

## **Bibliografia**

Rosenberg M.B./Martiaru, D. (Itzul.). (2021). *Komunikazio EzBortitza - Bizi-hizkuntza bat*. Txatxilipurdi.

Mendizabal Etxeberria, N. (2018). Komunikazio Ez Bortitza. *Administrazioan euskaraz*, 99. 21-23 or.